

Noaua!!

H A M A B O S K A R I A

2000ko abenduaren 8a V.urtea

Usurbil, 102 zenbakia



**Bazkalorduetan
ere ikastolan**

ARAETA

JATETXEA



Txotx
garaian
trikitixa egongo
da ostiral eta
larunbat
gauetan!

Abenduaren 16an afaria **TXEKORRADA**

Sardin zaharrak
Txorizo-parrilada
Bakailu-tortila
Txekorra

Gazta, menbriloa
eta intxaurreak
2500 + BEZ


Giroa alaitzeko trikitixa



Txotx irekiera eta
sagardotegi
denboraldiaren
hasiera!



TXIMINIA ALTZARIAK



ALTZARIAK AUKERAN

1.000 metroko erakusketa- Prezio harrigarriak

Punta-puntako markak %50ean: Altzari-trinko, lastaira eta
lastaira-azpikoen aukera haundia

Sofa eta besaulkiak, logelak, aulkiak, mahaiak

Ehundaka altzairu %50ean

Mailatu txikiekin eta gabekoak

Osinalde poligonoa

Tel.: 943 37 09 66


Txerrimunik ordainetan



Zorionak **Sergio!** Gure etxeko haundiak 15 urte beteko ditu abenduaren 11n. Hala ere ez pentsa argazkian bezain gazte mantentzen zarenik! Muxu haundi bat ama, arreba eta Juaniren etxekoan partez.



Zorionak **Xabat!** Gure etxeko mutiko pottokoak bi urte beteko ditu abenduaren 13an. Ondo pasako duzula-koan muxu asko zure famili guztiaren partetik.



Zorionak **Iñaki eta Joana Lertxundi** abenduaren 9 eta 10ean 3 eta 6 urte beteko baitituzue. Bestalde, **Eusebio Zulaikari** ere zorionak abenduaren 17an beteko baititu 78 urte. Zuen etxekoan partez muxu haundi bana eta ea igande honetan denok ondo ondo pasatzen dugun.

Hona hemen edonor zoriontzeko tartea. Bere urtebetetze eguna delako, ezkondu egin direlako edota tituluren bat lortu duelako dohainik, bazkide direnek nahiz ez direnek tartea hau erabili dezakete. Ekarri jarri beharreko testua eta argazkia.

Hurrengo alea: abenduaren 22an
Ekaritzeko azken eguna: abenduaren 15a

Hildakoak



2000-11-21
Marin Paduraru
44 urte
Zubieta



2000-11-22
Domingo Moriana Ruiz
61 urte
Santuenea

Udaltzaingoaren ordutegia

Astegunetan

6.00/22.00

Asteburu eta jaiegunetan

7.00/22.00

Gainontzeko orduak telefonoz.

Atea itxita aurkitzen baduzu deitu telefono honetara

943-361112

Bai, esan?

• Udala	37 19 51	• Taxi geltokia	36 21 78
• Udaltzaingoa	36 11 12	• D.Y.A.	46 46 22
• Anbulategia	36 20 13	• Gurutze Gorria	27 22 22
• Udarregi ikastola	36 12 16	• Gure Pakea	37 32 28
• Agerialde ikastetxea	36 38 95	• Gure Elkartea	37 17 51
• Oiardo kirolegia	37 24 98	• Arrate egoitza	36 63 40
• Zumarte	37 15 94	• Eusko Tren	47 09 76
• Etumeta	37 20 01	• Noaua! aldizkaria	36 03 21

Andatza
S.L
Carrocer as

Industrialdea
Errota Berri kalea
Tlf: 36 36 77

BENTARNOA
BENTNIK NATOR...

Igandetan ganba-ziri mundialak!

SERIGRAFIA
TANPOGRAFIA

10su

Ugaldea poligonoa 36 - 2º Esk
Usurbil - Gipuzkoa

37 19 54

INDUSTRI ETa
IRAGARKI SERIGRAFIA
KAMISETEN INPRIMAKETA

Zer irizten?

**Argitaratzailea**

Noaua! Kultur Elkarte
Bordaberri 3 Eguzkitzaldea
20.170 Usurbil (Gipuzkoa)
Tif. eta faxa: 943 36 03 21
E-mail: noaua.k.e@euskalnet.net
Web orria:
http://www.topagunea.com/noaua/

Kazetarien koordinaatzailea

Josu Aranberri

Kazetariak

Josu Aranberri, Amagoia Mujika, Olatz Lasagabaster eta Agurtzane Solaberrieta

Publizitatea

Agurtzane Solaberrieta

Zuzentzailea

Eneko Harreguy

Kolaboratzaileak

Ines Kamino, Iñaki Labaka, Iratxe Begiristain, Amagoia Mujika, Xabier Arregi, Pako Agudo, Alfontso Vidal, Alazne Begiristain, Zalao Arnaiz, Agurtzane Solaberrieta, Joseba Pellejero, Ainara Uribe, Eider Jauregi, Mikel Bengoetxea, Agustin Esnaola, Olatz Goenaga, Urko Manterola, Eneko Harreguy, Karmele Urdanpilleta, Joseba Zubeldia, Imanol Goenaga, Andoni Udabe, Manuel Begiristain, Eukene Kamino, Isaak Muñoz, Olatz De Miguel, Jone Eizmendi, Jokin Zubiaur, Maria Jesus Urbieto, Iñaki Agirresarobe eta Mari Angeles Arruti.

Administrazioa

Arantxa Usarralde, Aitor Pikabea, Aintzane Aizpurua eta Nagore Gonzalez.

Eredakzio Kontseilua:

Josu Aranberri, Amagoia Mujika, Gari-koitz Udabe, Olatz Lasagabaster eta Agurtzane Solaberrieta.

Maketazioa eta diseinua

Olatz Goenaga, Zalao Arnaiz eta Ibon Beristain.

Dokumentazioa

Idoia Agirre, Aintzane Aizpurua, Leire Mujika, Leire Unanue eta Nagore Gonzalez

Informatika

Pili Lizaso eta Karlos Aizpurua

Banaketa

Mertxe Jimenez, Xabier Kamino, Txelo Vidal eta Iker Muguruza

Elektrikaria

Iñaki Salsamendi

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96

ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza

Noaua! hamabostekariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Noaua! Kultur Elkarteko jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-20.00 astegunetan

Azala:

Ikasleak Udarregi ikastolako jangelan bazkaltzen

AEK aurrera, euskara aurrera

Garzon epaileak azken autoan egindako salaketan inguruan, AEK elkarteak honako hau jakinarazi nahi dio euskal gizarteari:

1. AEK-k ez dauka inolako loturarik ez ETArekin, ez eta promozioarekin zerikusirik ez duten bestelako erakundekin ere.

2. Autoan agertzen diren 19 lagunen artean batzuk AEK-ko kideak dira, beste batzuk AEK-ko kideak izan dira eta orain ez daude, eta zenbaitek ez du inoiz inolako harremanik izan AEKekin.

3. AEKren egiteko nagusia EUSKARA irakatsi eta gure hizkuntzaren zabalkundea sustatzea besterik ez da. Horrez gain, bestelako egitasmoak abian jarri ditugunean, xede horiei begira edo gure ohiko jardueran aurrera egiteko baliabide ekonomikoak eskuratzearren bideratu ditugu.

4. ETA erakundearekin zerikusirik ez dugula argi dago, eta epaileak egindako bestelako salaketan gainean, honako puntuak argitu nahi ditugu:

- AEK-k ez du inolako langilerik izan harik eta Eusko Jaurlaritzarekin AEK-ko kideen laborantzio prozesua

bideratzeko hitzarmena izenpetu arte.

- Langilerik egon ez bada, nekez egin dakioket iruzurrik Gizarte Segurantzari.

- BEZari dagokionez, nola egongo da ordaindu barik, bada, irakaskuntzan ari den erakunde batek ordaindu behar ez duen dirua? (irakaskuntzari loturik dauden jarduerak ez dute, legez, BEZik sortzen).

Hau guztia kontuan hartuta, inoiz baino ozenago aldarrikatu nahi dugu gure errugabetasuna. Izan ere, gure delitu bakarra euskaltzale izatea baita, hori inoiz delitua izan bada.

Azkenik, zera eskatu nahi dizuegu, orain arte bezala segi dezazuen euskal kultura eta gure hizkuntzaren defentsan. Bakoitzak egin dezakeen ekarpena eginez, euskara ikasiz, euskara erabiliz, euskaraz bizi ahal izateko bideak zabalduz,...

Guk gure aldetik, ahal dugun guztia egingo dugu eraso politiko-judizial honek indartsuago ateratzeko eta gure eguneroko lanean, euskara irakatsi eta sustatzen segitzeko.

Etumeta euskaltegia

ZURE ELKARTASUNA: elkartasuna@eknet.net



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria



Kultura sailak diruz lagundutako aldizkaria

Euskal presoak



Euskal Herrira!



Maika Solaberrieta

12 urte daramatza jostun lanetan Santueneako jostundegian. Urte hauetan guztietan ez du hutsik egin Santa Luzia eguneko afarian.



Nolatan hasi zinen jostun lanetan?

Mari Carmen Orozek jostundegia auzoan ireki zuenean, gauza berria izan zen auzotarrentzat. Josten ikasteko aukera paregabea egokitu zitzaigun eta denborapasa atsegina izango zela iruditu zitzaidan. Hori dela eta, kuriositateak jota, hobeto josten ikasi nahi nuela eta, hasi nintzen, beste hamar pertsonekin batera, jostundegi berrian.

Zenbat urte daramatzazu?

Ireki zuenetik nabil jostundegian, 12 urte inguru.

Afizio bat al da?

Afizio bat baino gehiago, denborapasa bat da, une atseginak igarotzeko aukera eskaintzen baitiizu jostundegiak. Gainera, jostura mundu misteriotsu bat da. Egunak igarotzen doazen heinean, gauza berri asko ikasten dituzu. Horrek, gainera, gehiago ikasteko irrikia pizten dizu.

Gogoratzen al duzu zein izan zen egin zenuen lehen arropa?

Gona bat izan zen, denok hasi ginen gonak egiten. Manikientzako gona bat egiten da hasieran, oihal zaharrekin, eta gero jada zuretzat egiten duzu.

Zeintzuk dira josten ikasteko jarraitu beharreko lehen urratsak? Azaldu prozesua.

Lehenik eta behin, gona batentzako patrioiak egiten irakasten dizute, hau da, neurriak hartu eta patrioiak egin. Gero alkandora egiten hasten zara, konplikaziorik gabekoa, alkandora klasikoa, pintzarik eta korterik gabekoa alegia. Hurrengo urratsa, josteko makina erabiltzen ikastea da; hasieran, telarik gabe, solik pedalari emanaz. Behin, pedala kontrolatzen duzunean, jada josten hasten zara, hasieran tela zaharrekin eta gero egiten ari zaren edozein arroparekin. Hasierako urrats hauek menderatu eta gero, bestelako gauzak ikasten hasten zara, albaintzen, poltsikoak egiten, kremaillerak egiten, etab.

Zer da gehien gorrotatzen duzuna?

Patrioiak eta poltsikoak egitea. Poltsikoak egiten

hasten zarenean badirudi ez duzula inoiz bukatuko.

Ekonomikoa al da bakoitzak beretzat arropak egitea?

Garai batean, bai, baina gaur egun ez. Telak garestitzeaz gain, gaur egun edozein dendetan arropak nahiko merke aurkitzen dituzu.

Baina, abantailaren bat izango du, ezta?

Abantailak baditu, batez ere zure gustuko eta zure neurriko arropak egiteko aukera daukazulako. Gainera, senitartekoentzat eta lagunentzat ere arropak egiten ditugu. Hala ere, garrantzitsuena da, denok une atseginak igarotzen ditugula jostundegian. Horregaitik, jendea bertara etortzera animatuko nuke.

Txori txiki batek esan digu, merendola ederrak prestatzen dituzuela bertan...

Norbaiten urtebetetze eguna denean, beti izaten ditugu pastelak, txanpaina, etab jateko. Hortan, behintzat, ez dugu hutsik egiten. Gainera, irtenaldiak ere antolatu izan ditugu gure artean, adibidez, udara batean Parisera joan ginen bertako lau lagun, beste batean Portaventurara ere joan ginen hiru egun igarotzera. Behin, gainera, sardinaren ehorzketa antolatu genuen auzoan. Sardina haundi bat egin genuen eta beltzez jantzita auzo osoan zehar ibili ginen negarrez.

Abenduaren 13an Santa Luzia eguna ospatuko duzue, ezta?

Bai, bai. Egun hau sakratua da guretzat. Aurten Atxegara joateko asmoa dugu, egun hontarako afaria eta dantzaldia antolatu baitituzte. Parranda egiteko asmoa dugu, nahiz eta asteazkena izan.

Urtero antolatzen al duzue zerbait?

Hasi gineteik gabilta Santa Luzia eguneko afariak antolatzen. Lehenengo afaria Olidenen egin genuen. Oso oroitzapen onak ditut afari hartaz, onena izan dela uste dut. Badakizu, 18 urte, afaria lagunekin etxetik kanpo,... imaginatuko zara zer izan zen afari hura.

TXOKOALDE

Eukene Camino



Andatzako gurutzeari buruzko hainbat datu

Hara hemen *ustegabeen Noaua!ko nere kronikarako gai polita*, pentsatu nuen Jorge okinak emandako argazki zahar hau etxean ikusi nuen batean.

1933ko maiatzean San Estebango ermitan ateratakoa omen da argazki hau, Anda-



tzan dagoen gurutzea inauguratu zuten egunekoa hain zuzen ere. Gaur egun Txarok ileapaindegia duen lokalean Urkiatarrek beste batzuen laguntzaz egindako gurutzea omen dugu hau.

1933ko apirilaren 17an nahiko ikuskizun sortu omen zen auzoan, baita herrian ere, orduan eramana eta jarria baita gurutzea. Andatzako bidean zuhaitzik ez zegoenez, makina bat jende egon omen zen lau idi paren artean gurutzea mendira arrastaka nola zeramaten begira.

Argazkian auzoko lagun dexente ikusi daiteke: Iruindegi-ko Elena, Simon-Eneako Patxi, Lukax zana eta Bittori zana, Portuko Joxe Mari, Goiko-Errotako Bixente e.a., garai hartan Don Frantzisko apaiza zanarekin.

Andatzako gainean dagoen buzoi zaharrenaren aztarna ere atera dut. Duela 60 urte inguru Donostiako "Ur Kirolak" elkarteak jarria omen da, Errementaldegi baserriko astoarekin mendira igota.

Maiatzaren lehendabiziko igandean, urte osoan ere bainoski, Andatzako eguna orduan ospatzen denez, aukera ederra izaten dugu bertara igo eta egun eder bat pasatzeko. Eutsi diezaiogun bada ohitura honi!

KALEBERRI

Ines Kamino



Dorre berrian ere sei eta erdiak

Badirudi elizako dorrea zaharberritzeko azken hila-bete hauetan burutu dituzten konponketa lanak amaitu direla, edo behintzat amaitzeaz daudela, eta hori ez da gutxi. Bestela, Etxebeste kalean bizi diren herritarrei galdetzea nahikoa da.

Hiru milioi inguruko aurrekontua duten argiak ere piztu dituzte, hau da, eliza argiztatzeko elizaren kanpoaldean jarri dituzten argiak jadanik piztuta ikusteko parada izan dugu azken egun hauetan. Honen ildotik, herrian dagoeneko bertsuak eta guzti egin dituzte. Hauxe kantatu zidan lagun batek:

Gure dorrea nola ikusten den aitzakirik ez dut ezer egunez eguzki indarrez eta gauzez Iberdrolari esker.

Hala ere, 88 urte dituen erlojua bera, auskalo zenbagarren aldiz konpondu badute ere, oraindik ez dago mar txan. Beraz, oraindik ere sei eta erdiak ikusten jarraitu beharko dugu hurrengo egunetan ere.

Paris etxeko parkea dela eta, hamaika kontu entzuna naiz. Bateko Manhattan

hiria ematen duela eta beste-ko arkitektoak txukun ez direla ari. Eztabaida honek luze jo dezakenez, hurrengorako utzi behar. Ordurako berandu ez al da izango?



KALEZAR

Ainara Uribe



Hankaz gora

Aze kuxidadea dagoen Kalezarko kaleetan! Hemendik pasa zaretenok ikusiko zenuten nola daukagun gure auzoa.

Alde batetik bestera igarotzeko makina bat oztopo



zeharkatu behar dira; batetik, barandilak direla, bestetik, zuloak direla, langileak direla, auskalo zer dela... azken batean, auzoa hankaz gora dagoela esan daiteke. Kotxeek ere une oro kamioi eta gruekin egiten dute topo, eta imaginatuko duzue itxaroten igaro behar dugun denbora.

Auzoan dagoen kuxidadea dela eta, beti burua hausten ibili behar dugu; euria egiten badu lokatzez gainezka egoten da auzoa, eguraldi ona

eginez gero hautsez betetzen gara, gauez ere zuloak daudela eta argi bili behar dugu estropoz egin nahi ez badugu behintzat, kotxez joaten bagara ere agian bidea moztuta topatzeko arriskua daukagu,...

Hala ere, badirudi auzokideek parking alternatibo bat bilatu dutela obrak amaitu bitartean, plaza bera hain zuzen ere, izan ere, orain bertan uzten baitituzte kotxeak. "Kaos" batean bihurtu da beti hain lasaia eta toki atsegina izan den Kalezar.

Beno, gaurkoz dezente kexatu naizela iruditzen zait eta edozein haserretu baino lehenago bukatzea izango dut egokiena. Beste bat arte.

ATXEGALDE

Ione Eizmendi



Hotzari aurre eginez

Gure auzo honetan ere berogailuak ugaritzen ari zaizkigu. Balkoietara begiratzen badugu, gero eta leku gehiagotan ikusten ditugu gas naturalarentzako tuberiak eta kalderak. Ez da harrizkoa, izan ere, neguko hotzari aurre egiteko gure etxeak prestatzeak ez baitigu inongo kalterik ekarriko. Goxotasun pixka bat denon onerako izango dela uste dut.

Bestalde, aurtengo udazkenak ekarri dizkigun euri jasak ez dira txantxetakoak. Hala ere, baditu bere alde onak ere. Alde txar ugari baditu ere, nik alde onei erreparatuko diet. Alderdi onetik begiratzen badiogu, gauza ugari egin daitezke, besteak beste, lagunar-

tean edo familiaretan kartetan jolastu, eskulanak egin, baserri ingurura begiratu, babarrunak aletu, etab. Gainera, danbolinarian erretako gaztain gozoak janez tertulian egoteko primerako egunak ere badira. Abantailak ugariak diren arren, askotan, alderantzizkoa egiten dugu, izan ere, beti kexatzen egoten baikara eguraldi txarra egiten duen bakoitzean.

Azkenik, gabonak ate joka ari zaizkigula eta, proposamen edo

gomendio txiki bat egin nahiko nuke; Olentzerotan edo Errege egunean zerbait oparitzekotan, aurtun aterki on bana oparitu, ez zaizue damatuko.



SANTUENEA

Agurtzane Solaberrieta



Aurtengo Santa Luzia egunean ere, ezin hutsik egin!

Abenduaren 13an Santa Luzia eguna dugu. Askorentzat esanahirik gabeko data izan arren, jostunentzat egun esanguratsua da. Izan ere, Santa Luzia egunean jostunen eguna ospatzen baita.

Gure auzoan jostunen elkarteak sortu zenetik, hango emakumeek (emakumeek diot, urte hauetan guztietan ez baita gizonik aritu josten) Santa Luzia eguna ospatzeko ohitura dute. Horregaitik, aurtengoa ere zita honi hutsik egin gabe, dagoeneko hasi dira prestaketa lanetan.

Mari Carmen Orozek jostundegia orain dela 12

urte ireki zuen. Orduz geroztik urtero-urtero antolatu izan dute afaritxoren bat edo beste.

Leku askotan, jatetxetan batez ere, ospatzen da Santa Luzia eguna, besteak beste, Donostiako Alde Zaharreko

jatetxetan, Txintxardin Beltzan, Idoian, Jauregin, etab. Aurtengoa Atxega jauregiak egun horretarako zerbait berezia antolatu du. Hori dela eta, lehendabizikoz, herrian ospatuko dute Santa Luzia eguna, dantzaldia eta guzti.

Aurtengoa, tamalez, asteazkena egokituta, hala ere parrandaxoren bat egiteko asmoa dutela agertu dute bertakoek. Ez da harritzekoa, izan ere, ederrak baitira hauek parrandarik gabe geratzeko. Ondo ibili eta Zorionak jostun guztiei!



URDAIAGA

Eider Jauregi



Mendi garbiketa

Nahiz eta ia gehienetan ezertxo ere ez eduki tarte honetan kontatzeko, oraingoa badut zertxobait esateko; izan ere, Urdaigatik Igartzabalera doan bidean dagoen pinudia botatzen hastera baitoaz. Dagoeneko kamioiak eta guak hasi dira bidea egiten pinudi guztia ahal den ongien bota ahal izateko. Hori bukatu bitartean ez da giro izango bide horretan, lokatza dela eta bidea irristakorra egongo baita.

Orain arte zaila izan bada kotxe bat behetik badao eta beste bat goitik badator biak batera igarotzea, orain

kamioiek darabilten joan-etorriekin zer esanik ez. Obra guztiekin pasatzen zaigun bezalaxe, orain ere aguantatzea eta pazientziak hartzea beste erremediorik ez zaigu geratzen, azken batean horiek ere egin beharrekoak izaten baitira noiz edo noiz. Hala ere, obra orenen emaitza ona izaten da, normalean, eta espero dut obra hauek guztiak ere emaitza bera izatea.

Azken komentario bat ere egin nahiko nuke; dagoeneko Usurbilgo elizaren

dorrea berrituta dago, Zubietako elizan ere badirudi zerbaitean ari direla, aldamia jarrita baitago. Beraz, Zubietatik barrena, Urdaigara iritsiz gero, honek ere hartuko luke horrelako konponketaren bat, nahiz eta barrukaldea berritua egon.



AGINAGA

Maria Angeles Arruti



Birziklatzeko ontziak

Beti eskean hasten dut tartetxo hau, askotan, behintzat, bai. Oraingo honetan, ordea, eskertzeko erabiliko dut kronikatxo hau. Duela hilabete pare bat Nekazaritza Aholku Batzarrari, Intxaurreta bailara honetaz gogoratzeko eskatu genion, berziklatzeko ontziak jartzeko eskatuz. Gure eskaerari kasu eginaz, kristala berziklatzeko ontziak jarri berri dituzte. Orain, ordea, plastikoa berziklatzeko ontzia falta zaigu. Ea bada, hau ere laster jartzen diguten.

Paperarena ere ez litzake gaizki etorriko. Egia esan gurea

baserri ingurunea izanik, gehienok papera eta kartoia sua egiteko erabiltzen dugu. Hala ere, bada surik egiten ez duenik, beraz, norbaitek gustura hartuko luke papera eta kartoia berziklatzeko aukera ere.



Badirudi tartetxo honetan gutxitan falta dela piperraren aipamenik. Oraingoan ere, halaxe izango da. Izan ere, dagoeneko piper denboraldia bukatu zaigu eta dagoeneko hasi dira traktoreak hurrengo urterako lurra goldatzen eta prestatzen.

Santa Luzia ere gain-gainean dugu. Ohitura denez, auzoko emakume koadrila ederra bilduko gara afaltzeko. Eta batzuk gure ohitura berezi bati eutsiko diogu aurten ere, Santa Luzia egunean, Luziaren omenez, gutxienez botoi bat josi beharra baitago.

ZUBIETA

Mikel Bengoetxea



Zimitorioa (II.parte)

Noauaren 101. alean Xabier Arregik bere kronikan esan zuenez zubietarrek herri-bilera bat egin zuten pasaden azaroaren 20an. Elizaren zimitorioa zen gaia, izan ere, hau dagoen lekuan utzi edo tokiz aldatzeko erabakia hartu behar zen. Bozketa egin ondoren zimitorioa tokiz aldatzea erabaki zen, hogeitabi lagun horren alde azaldu baitziren eta lau kontra.

Beraz, bazirudien zimitorio berria elizaren atze aldean kokatuko zela, baina honek eman du besterik. Azaroaren 25ean komunitateko kideak bildu ziren Alamandegin.

Komunitatea, Zubietan zenbait ondasun kudeatzen dituen lurjabe batzuen elkarte da (garai batean herri-lurrak eta herri-ondasunak zirenak, gerora pribatizatu zirenak, hala nola,



Gurtertz elkartearen lokala, udal aretoa etab.).

Bilera horretan esan zuten, zimitorio berria eraikiko den lekua beraiena izan daitekela uste dute, eta beraz, ez dago hain garbi beraien baimenik gabe elizaren eranskin hori eraiki daitekeen ala ez.

Gauzak horrela, bada txikitatik dotrinan erakusten duten esaldi bat: "Jainkoa toki guztietan dago". Baina Zubietan esaldi horrek ez du hainbesteko indarririk, izan ere, Zubietan "Komunitatea dago leku guztietan", eta badira batzuk gogorarazteko prest daudenak.

Udalak datorren urtean udal aldizkaria argitaratzen hasi nahi du

Udaleko Gobernu Batzordeak Kultura Batzordeak aurkeztutako udal aldizkariaren proiektua onartu zuen pasa den azaroaren 28an. Bi edo hiru hilabetean behin udaleko kontuak jorratuko dituen aldizkaria kaleratzea da udalaren asmoa. Proiektu hau onartu ondoren egitasmo hau aurrera atera ahal izateko prozedurari ekingo diote, udal aldizkari hau datorren urterako kalean izatea baita beraien asmoa.

Udalak duen aldizkariaren beharraz jabeturik datorren urtean udal aldizkari bat argitaratzen hasteko proposamena egin zuen Kultura Batzordeak. Proposamen honen arabera, bi edo hiru hilabetea maiztasunarekin kaleratuko litzateke aldizkari hau. Euskeran hutsean 16 orrialdeko aldizkaria kaleratzea da udalaren asmoa, eta lau orrialdez osatu-

tako beste bat gaztelaniaz laburpen bat egiteko.

Edukinari dagokionez, udal erabakirik garrantzitsuenak jasoko dira bertan, hauek herritarrei zertan eragingo dien argi azalduz. Horrez gain, Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzak eta oro har udalaren gainetik dauden instituzioek hartutako erabakiek herritarrei nola eragingo dieten ere azaldu behar luke.

Kultura Batzordeko kideen esanetan erabaki garrantzitsuen

aurrean herrian eztabaida sortzeko tresna izan beharko luke, udal kudeaketan gehiengoa duen alderdiaren iritzia bertan azalduz eta oposizioari ere bere iritzia bertan azaltzeko aukera emanez. Horrez gain, herritarrei lekutxoaren bat eskaini eta herriko kultur eta kirol iharduerek beren tarteaz izateko ere gomendagarria dela uste du batzorde honek.

Gobernu Batzordeak proiektua onartu ondoren egitasmo hau martxan jartzeko prozedu-

ra abian jarriko du. Izan ere udal aldizkari hau datorren urtean argitaratzen hasteko asmoa dutenez, enpresa ezberdinen proposamenak lehenbaitlehen aztertu nahi dituzte aldizkaria nork egingo duen ahalik eta azkarren erabakitzeko. Adjudikazioa urtebeterrako izango da, behin lehenengo urtea pasatzean luzapenak izateko aukerarekin.



Potxoenea berreraikitzeako proiektua



Irazu kalean dagoen Potxoenea edo Arrillaga enea izeneko etxea udalarena da dagoeneko. Pasa den otsaileko udalbatzan eraikuntza honi erabilera sozio-kulturala ematea eta etxea berreraiki eta antolatzea erabaki zen. Kultur eskakizunei beharrezko erantzuna emateko asmoz eta kaxkoko lanak erabat bukatuta uztearren proiektua ahalik eta azkarren idatzi behar dela erabaki du udalak. Horregatik, Potxoenea kultur eta gizarte ekintzetarako berreraiki eta antolatzeako proiektua Ainara Sagarna arkitektoari adjudikatu zaio, eta horretarako bi milioi pezeta bideratuko dira.



Izen-abizenak herriko Bake-epaitegian euskaratu daitezke

Zuen izen-abizenak herriko Bake-epaitegian euskaratu ditzazkeue dagoeneko. Urte batzuk pasa dira "Apelliduak abizendu" kanpainari ekin zitzaionetik, baina orain udalekok euskara zerbitzuak egindako lanari esker ez da hilabeteetan abizena noiz aldatuko zain egon beharko. Bake epaitegira Familia liburuarekin joan eta bertan euskaratu daitezke izen-abizenak.

Urte batzuk pasa dira herritarrek abizenak euskaratzen hasi zirenetik. Hasiera batean, garai hartako legediari jarraituz, udalak jasotzen zituen beharrezkoak ziren agiriak eta Donostiako bake epaitegitik bideratzen zen guztia. Gerora, Usurbilgo herri epaitegitik bideratzen hasi ziren, baina hauek ere Donostiara bidali, hemendik Madrila pasa eta sei hilabete pasatzen ziren abizena euskalduntzerako.

Denbora horretan, ordea, Euskaltzaindiak abizenak euskaratzeko liburua argitaratu zuen, Eusko Jaurlaritzako Justizia saila ere burubelari ibili zen legea aldatzeko asmoz eta ekimen hauen bidez legea aldatzea lortu zen.

Lege berria etorri zenean, dekretu berriak aurreko burokrasia guztia pasa gabe eta denbora luzean zain egon gabe, berehala eta bat-bate-



an, herrietako Bake-epaitegitan abizena euskaratzeko aukera ematen zuen. Ez, ordea, Usurbilen. "Usurbildarrak berdinean zeuden. Nahiz eta lege zaharrenekin denbora gehiago pasatzen zen, zerbitzu hau herrian eman behar zela eta herritarrari gauzak erraztu egin behar zitzaizkiola argi geneukan. Lege berriarekin bidea errazten zen baina herriko Bake-epaitegiko idazkariak ahalmen hori ez zuenez usurbildarrek Donostiara joan beharra zuten".

Bide luzea eta dei asko, nahi zena lortzeko

Udaleko euskara zerbitzukoak, halabaina, ez ziren eskuak gurutzatuta gelditu. Eusko Jaurlaritzako Justizia Sailari arazoa konpontzeko eskaera egin zioten lehendabizi, baina hauek ezin omen zuten ezer egin. Donostiako dekanoarekin hitz egin eta Bilboko Auzite-

gi Gorenera jo zuten gero, baina hemendik Madrilera Notaritzaren Erregistrora bidali zituzten. Azkenean, urriaren 19an Donostiako Jueza-magistrada nagusiak Usurbilgo Bake-epaitegiko idazkari titularra bertan herritarrek izen-abizenak euskaratzeko ahalmentzen zuela jakinarazi zitzaion udalari.

Beraz, hemendik aurrera izen-abizenak euskaratu nahi dituztenek ez dute buruhauste haundirik izango. Familia-liburua hartu eta herriko Bake-epaitegira joan besterik ez dute astelehen, asteazken edo ostiraletan goizeko 9.00etatik 13.00era. Hemen aldaketa egin ondoren agiri bat emango zaie. Orain arte abizena euskaratu dutenek "Acta de comparecencia" izeneko agiri hori erdaraz jaso dute, baina orain euskaraz jasotzeko aukera dago "Agerrialdiaren akta".

GALARRA
GARRAIO

* LUR ONGARRIAK
* ZABOR BILKETA
* ZISTERNA BEREZIAK

☎ 37 01 46



TXIRIBOGA
TABERNA

pintxoak, bokatak
eta plater konbinatuak

Irazu kalea, 3 Tel.: 943 37 00 13

Bazkal orduetan ere Udarregi ikastolan sartuta



Goiz parteko klaseak bukatu ondoren ikasle ugari ikusten ditugu Udarregi ikastolatik ateratzen. Etxerako bidea hartzen dute gehienek, bazkaria mahai gainean zain izaten baitute. Beste batzuk, ordea, ez dute etxera joan beharrik, ikastolako jangelan zain izaten baitituzte Maria Jesus Goldarazena eta Ane Agirre "monitore-sukaldariak". Egunero batzuk, noizehan behin besteak, ikastolako jangelan asetzen dute ikasgaiek sortzen duten gosea. Eskuak garbitu eta mahai ondoan eseri ondoren hain gustoko dituzten makarroiak jaten topatu genituen.

Gaur egun gero eta normalagoa da aita-amek lan egiten duten familiak topatzea. Goizean haurrak ikastolara eraman ondoren hauei bazkaria emateko denborarik ez dute izaten askotan. Arazo horri irtenbidea emateko sortu zen Udarregi ikastolako jangela duela zortzi urte. Zortzi urte hauetan haur eta gazte ugari pasa dira bertatik, eta hauetako askok bigarren amatzat izango dituzte bertan janaria eman eta bazkalorduan beraien zaindari diren Maria Jesus Goldarazena eta Ane Agirre.

Aurtengo ikasturtean, normalean 46 ikaslek bazkaltzen dute Agerialden dagoen jantoki honetan. "1992. urtean jantoki hau martxan jarri

genuenean haur asko etorri ziren. Ikasturte hartan 44-45 haur izaten genituen bazkaltzen, baina ondorengo urteetan 35 ikasletara jeitsi zen kopuru hori- dio Maria Jesus- sek- Hala ere, iaz berriz ere 45 haur etortzen ziren ikastegunetan hona bazkaltzera eta aurten ere mantendu egiten da kopuru hori. Aurten, adibidez, irailean 13 bakarrik etorri ziren, baina urritik aurrera kopuru hori mantentzen dugu".

Hala ere, haurrak bazkaltzen jantokian utzi nahi dituztenek aukera ezberdinak dituzte. Batzuk egunero joaten dira, ikastegunetan noski, beste batzuk, berriz, noizean behin bazkaltzen dute ikastolako jantokian. Horretarako

ikastolan bertan abisatu behar izaten dute egun baterako haurra jantokira eraman nahi duten gurasoek.

Adin eta auzo ezberdinetako haurrak biltzen dira ikastolako jantokian. Maria Jesusen esanetan Kaxkoan bizi dira gehienak, baina inguruko auzoetakoak ere bazkaltzen dute bertan. *"Jantokira bazkaltzera etortzen diren ikasleetatik gehienak Atxegalde, Kaleberri... kaxko ingurukoak dira. Hala ere, Zubietakoak sei badaude eta hiruzpalau aginagar ere bai. Adinari dago-kionez, hiru urtetik hasi eta 5 urte bitartekoak bazkaltzen dute hemen. Mahai bakoitzean adin berdintsukoak jartzen ditugu".*

Bazkaria Auzolagun Kooperatibaren esku

Jantokia Udarregi ikastolak eskaintzen duen zerbitzu bat bada ere, Arrasateko Auzolagun kooperatiba arduratzen da ia guztiaz. Bertan dauden bi zaintzaileak kooperatiba honek kontratatatuak dira eta egunean eguneko bazkaria ekartzeaz ere beraiek arduratzen dira. Bazkaria prestatuta ekartzen dutenez, Maria Jesus eta Aneren ardura izaten da mahaia jarri, janaria banatu eta ikasleak zaintzea.



45 ikasle inguru joaten dira ia egunero Udarregiko jangelara

Eguneroko menua ezberdina izaten da eta denetik jan behar izaten dute jangelan bazkaltzen gelditzen diren haurrek. *"Haragia, arraia, oilaskoa, tortila, pasta, arroza... denetik izaten da astean zehar. Aldez aurretik aste osoko bazkarien menuak bidaltzen dizkigute, kaloria kopurua etab. zehaztuz".* Hori bai, menu hauek ez dira beti

jangelan bazkaltzen gelditzen diren ikasleen gustokoak izaten. Maria Jesusen esanetan makarroiak, arroza eta horrelakoak izaten dituzte gustoko. *"Arroza eta makarroiak ondo jaten dituzte, baina arraia dagoenean... Hau ez dute gustoko izaten. Bigarregorako zer dagoen galdetzen dutenean eta arraia dagoela esaten diogunean... akabo, ez dute gustoko izaten. Berdura eta horrelakoak, berriz, nahikoa ondo jaten dituzte".*

Txikienak 12.30etan inguratzen dira jangelara, eta haundienak berriz, beranduxeago. Eskuak garbitu ondoren bakoitza bere lekuan esertzen da. Bazkaldu ondoren, ordea, ez dira segituan kalera joaten. *"Txikienak hemen jolasten gelditzen dira. Jangelan bertan jostailuak dituzte, eta beste gela bat ere erabili ohi dute nahi dutena egiteko. Hori bai, eguraldi ona egiten badu kanpoko jolastokira eramaten ditugu. Haundienak, berriz, normalean 14.00ak inguruan ateratzen dira hemendik".*

Etxean bazkaltzen ez badute ere gustora egoten dira ikastolako jangelan. Lagunarte giroan bazkaltzen dute eta bertan gelditzen direnen izenak bazekizkiten gu joan ginenean. Gainera gustoko bazkaria ekartzean... denak gustura.



Herriko musikariek ere Santa Zezili eguna ospatu zuten

Eta musika eginez ospatu gainera! Zumarte musika eskolako ikasleen saioa izan zen lehendabizi pasa den azaroaren 24an. Udarregi ikastolako erdiko aretoan musika lau haizetara zabaldu zuten herriko musikariek. Haizezko instrumentuekin batzuk, gitarra eta baxuarekin besteek, akordeoia eskuetan hartuta hurrengoek... herriko musika eskolan urtetan zehar ikasitakoa jende aurrean aurkeztu nahi izan zuten.

Azaroaren 26an, berriz, herriko txistulari taldearen txanda izan zen. Goizean zehar txistu hotsez alaitu zituzten herriko kaleak. Txistuak eta danborrak hartu eta kalez kale ibili ziren guztioi "egunona" emanaz. Ondoren, eguerdi aldera, herriko frontoian txistu emanaldi polita eskaini zuten.

Hala ere, ez da hor amaituko herriko musikarien ibilia. Izan ere, Zumarte musika eskolako abesbatza txikia Katalunia aldera joateko asmoarekin da. Duela hilabete batzuk "Cor Infantil Sant Cugat" abesbatza-koak etorri ziren Usurbila, abenduaren 15, 16 eta 17an, berriz, herriko abeslariak Sant Cugat aldera joango zaizkigu. Bertan, usurbildarrek abesteko duten abilezia erakutsi beharko diete kataluniarrei.



JUANTXO
burdindegia
kale nagusia 10 Usurbil
37 00 08



MAHUKA

Gizon eta emakumezkoen
modako arropa guztia hemen aurkituko du

Etxebeste kalea, 3- tlf. 943 36 11 06

Kale Nagusia USURBIL
Tlf. 943 37 33 40
943 37 09 11

LABE-GOXO
burdindegia - usurbil

Usurbil-Aia, lau idi pare eta bi herriren arteko dema

Idiak deman, garai batean bezala, aizue! "Aida" eta "goazen" oihuak aurten laugarren aldiz entzungo dira herriko dema plazan. Izan ere, abenduaren 10ean herriko eta Aiako idien arteko dema izango da. Bi idi pare goizean, beste bi arratsaldean zein herritakoak izango ote dira indartsuagoak?

Usurbil eta Aia muga egiten duten bi herri dira. Biek dituzte dema-plazak eta urteetan zehar biak izan dira baserri giroko herriak. Idi-demarako afizioa ere oraindik ez da galdu bietan. Ezagunak dira Aian egiten diren idi-dema lehiaketak, eta azkenaldi honetan gure herrian ere afizio hori berpizten ari dela dirudi.



Herrian egiten den urteko laugarren idi-dema izango da abenduaren 10ekoa, eta ez du "morborik" falta gainera. Herriko bi idi parek Aiako beste birekin neurtuko dituzte indarrak. Eguerdiko 12.00etan herriko Egioleta eta Aiako Askorte izango dira aurrez-aurre. Arratsaldeko 17.00etan, berriz,

Arratzain eta Txintxuaren idiek neurtuko dituzte indarrak.

Lau idi pareek 30 minutu izango dituzte 1800 kiloko harriarekin ahalik eta plaza gehien egiteko. Bukaeran herri bakoitzeko idi-pareek egindako plazak batu eta gehien egiten duena hura izango da bi herrien arteko irabazlea. Irabazleak, gainera, oraindik zehaztu gabe dagoen saria izango du.

Andatzpe eta Aitzaga elkar-teeke antolatu dute idi-dema hau ere. Urte honetan beraiek antolatzen duten hirugarren saioa da, eta datorren urtean ere bide beretik jarraitzeko asmoa dute. Hori, bai, horrela-ko idi demek kostu handia izaten dute eta abenduaren 10eko bi saioak ikusi nahi dituenak 1500 pezetako sarre-rra ordaindu beharko du.



N • U
Ileapaindegia

MISTOA
Solarium, depilazioa,
makilajea eta manikura

Aritzeta 2-2 1.A
Tel.: 943 36 19 51



Kima

MASAJE LEKUA

Kirol masajea eta masaje terapeutikoa



Kale nagusia, 44- behea
LASARTE-ORIA

TEL. 36 61 97

P A T R I

J A T E T X E A

Eguneko bazkariak
eta afariak

Nagusia 6,
Tel.: 943 36 27 25

20170 Usurbil
(Gipuzkoa)

Futbol aretoa, lagunartean ondo pasatzeko parada

ANTXETA

Antxeta taldeko 10 jokalariek ondo pasatzea eta lagunartean kirola egitea dute helburu. Badira dagoeneko lau urte futbol aretoan hasi zirela. Jubenil mailan ekin zioten beren ibilbideari eta duela bi urte jubenil mailatik bigarren maila nazionalera pasa diren adin kontuak direla medio.

Izan ere, 20 urte dituzte batazbeste Antxetako jokalariek. Batzuk eskubaloian eta futbol aretoan aritzen dira, kirolari peto-petoak direla pentsatu behar. Hala eta guztiz ere guztiek nahiko argi dute zein den helburua *"lagunartean egon eta, bide batez, izerdi pixka bat botatzea da gure helburu nagusia"*.

Gehienak herritarrak badira ere, Añorga aldetik ere etorri dira talde honetara *"taldea indartu asmoz"*. Hala ere ez pentsa *"atzeritar"* asko dituztenik, taldeko bi bakarrik baitira Añorga aldetik etortzen direnak.

Kontuak kontu, denboraldia nahikoa aurreratu dagoen honetan, badirudi Antxeta taldekoak ez dabilzala nahi bezain txukun. Hasiera honetan sailkapeneko atzeko postuetan kokatuta daude, baina pixkanaka-pixkanaka sailkapen horretan goruntz joateko itxaropenik ez dute galdu. Ea aurrerantzean emaitza hobekak lortzen dituzten, lagunartean bada ere, irabazteak ez baitu kalterik egiten.

pello arraindegia

Talde honek 17 eta 19 urte bitarteko hamar gazte bildu ditu aurtengo denboraldian. Batzuk iaz Harane aldean aritu ziren jubenil mailan. Beste batzuk, berriz, judoan edota pilotan aritutakoak dira orain artean. Lagunartean aritzeko aitzakian, aurreko urteetan sofan etzanda egondako batzuk ere animatu dira aurtengogan taldean parte-hartzera.

Kontuak kontu, *"koadrilakoekin egon eta ondo pasatzea"* omen dute helburu Pello Arraindegia taldekoek. Hauek ere, Antxeta taldearen antzera, ez omen dute oso txukun hasi denboraldia, aspaldi hasitako denboraldia, gainera.

Giro onean bada ere, jokalariek elkarri exigitzen diote, jokuaren legea baita hau ere.

Oraingoz partida bakarria irabazi duten

honetan, oso argi dute hurrengo urtean ere jarraituko dutela futbol aretoan. *"Ikasteko asko dugu, oraingoz egurra baino ez baitugu jaso"*. Hala eta guztiz ere, umore ona, behintzat, ez dute galdu.



Haginak ondo dabilzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Kale Nagusia, 2 1.C4
Tlf 943 37 08 78

20170
USURBIL



Urtinea Elkarte

Loreak - Lore landareak

Lore sortak - Koroak

San Esteban
Tlf.: 943 36 22 55

Ixabel I.goa eta irasagarra, Santo Tomas azokako protagonista berriak

Delako Santo Tomasek aita handia Donostia aldean omen du, halaxe izan du, behinik behin, orain artean. Aurten, ordea, seme ederra atera zaio Usurbil alde honetan.

Aurtengoa ez da herrian Santo Tomas ospatzen den lehenengoa, aurretik ere Ziortza taldekoek hamaikatxo talo eta txistorra prestatu baitute egun honen aitzakian. Aurtengoak, ordea, badu berezitasunik, prestaturiko egitaraua begiratzea baino ez dago hortaz konturatzeko.

Datorren abenduaren 17an izango da herriko Santo Tomas azoka. Tabernarien Elkartek, Udalak, Noaua! eta Ziortzak elkarlanean antolaturiko festan, ezinbestekoa izan da Nekazaritza Aholku Batzarreko kideen laguntza. Bateko ideiak eta besteko proposamenak bilduta, azkenean festa ederra izango da hilaren 17an; xumea, baina polita.

Festa handiarekin ezin lehiatu

Santo Tomas eguna berez egun horretan ez den arren, antolatzaileek hasieratik jakin dute egunean bertan, abenduaren 21ean, zaila dela hiriburuko "festa handiarekin" lehiatzea. Arrazoi hau dela medio aukeratu dute aurreko asteburua. Eta zer topatuko dugu, ba, abenduaren 17an?

Festa goizeko 11etan hasiko da Udalak Bizkarre kalean duen egoitzan **irasagar edo menbrillo zentruaren irekierarekin**. Bertan izango dira Udaleko ordezkariak eta zentrua aurrera atera duten Behemendi taldekoak.



Ordu erdi beranduago emango zaio hasiera **Santo Tomas azokari**. Hauxe izango da aurtengo berrikuntza nagusia. Egund hau indartu beharra zegoela eta, antolatzaileek berezia zen zerbait egin nahi zuten "herri mailako festa txiki bat", alegia.

Euskal Herrikoa bertakoa, autoktonoa den Ixabel I.goa, 100 kiloko txerria, izango da festaren erregina

Azoka honetara gerturatuko dira Behemendi elkarteko 7 edo 8 postu eta baita herriko hainbat nekazari ere. Guztira 14 bat postu izango direla aurreikusita badago ere, oraindik epea zabalik dagoenez, ez da gauza ziurra. Denerariko postuak izango dira, gainera, ezitia, barazkiak eta baita abereren bat edo beste.

Eguerdiko ordubata aldera, irasagar dastaketa izango da, gaztarekin lagundua.

Goiz guztian zehar Ziortza taldekoek gaztainak, taloa eta, nola ez, txistorra banatuko dituzte.

Festaren erregina izango da, dudarik gabe **Ixabel I.goa**, Euskal Herrikoa bertakoa, autoktonoa, den 100 kiloko txerri hau zozketatuko baita pilotalekuan.

Ordu biak aldera emango da ezagutzera Ixabel I.goa etxera eramango duena. Ordu honetan bertan, azokako postuen artean onena zein den erabakiko du epaimahaiak. Irabazlea hautatzeko postuaren itxura eta produktuen kalitatea izango da irizpide nagusiak.

Kasualitateak kasualitate, goizeko festa arratsalde partera ere luzatuko da. Arratsaldetan etxeko txikienek Takolo, Pirritx eta Porroxtekin gozatu ahal izango baitute polikiroldegian. Beraz, badakizue, txistorra onaren bila ez da hiriburura gerturatu beharrik eta giro ona Usurbilen soberan izango da datorren abenduaren 17an.

Amagoia Mujika

Realaren Zubieta XXI proiektua: lau urteko egitasmo erraldoia

Zubieta herri txikia dela esaten da askotan, baina edozein herrik baino oihartzun haundiagoa du kirol arloan. Nork ez du ezagutzen Zubieta hipodromoa, nor ez da inoiz Realak Zubieta dituen kirol instalazioetan izan. Azken honek eman du zeresanik azkenaldian. Izan ere, Realak Zubieta XXI proiektua aurkeztu zuen pasa den azaroaren 24an. **Abenduaren 4an hasi eta 2004 urte arte erabat aldatuko dute garai batean Zubieta futbol zelaia bakarrik zegoen lekua.**

Realak Zubieta duen kirol instalazioetan aldaketa nabariak egingo dituzte datorren hilabetetik hasita. 1500 milioiko aurrekontua du Zubieta XXI proiektua deritzon honek eta 2004 urte amaierarako bukatzea espero dute. Gipuzkoako Foru Aldundia eta Kirol Kontseilu Gorenaren laguntza izango du Realak proiektu hau gauzatzeko orduan eta urtarilean jakingo da zein enpresak egingo dituen lan hauek.

Lau futbol zelai, zerbitzu orokorreko eraikina, prentsa aretoa eta harmaila dira Realak egun Zubieta dituen instalazioak, baina 4 fasetan banatuta instalazio kopuru hau haunditzeko asmoa dute.

1. fasea:

- Futbol zelai nagusiko harmailak estaliko dituzte.
- 74 autorentzako aparkalekua egingo da.
- Prentsa areto egokiagoa egingo da.
- Taberna bat jarriko da.

Abenduaren 4an harmailak estaltzen hasiko dira eta urtaril amaieran amaituko dute. Gai nontzeko lanak 2002 abuztuan amaitzeko asmoa dute.

2. fasea

- Belarrezko hiru futbol zelai egingo dira.
- Harmaila estaliak egingo dira.
- Kirol eta osasun zerbitzuetarako eraikina egingo da.

Aldi hau, lehenengoarekin batera, 2002ko abuztuan amaituko dute.

3.fasea

Jokalari gazteentzat egoitza egingo dute, 25 lagunentzako modukoa; 14 gela izango ditu. Fase honetako lanak 2003. urte bukaeran bukatzea dute helburu.

- Lehen solairuan taberna eta jatetxea egingo da.
- Bigarren solairuan gazteentzako egoitza egingo da.


4.fasea

Realak akordioak dituen Gipuzkoako taldeekin hartu-emanak izateko egoitza eraikiko dute. Gimnasioak, osatzeko eta ikasteko gelak eta bulego teknikoak egingo dira bertan. Lan hauek 2004. urte bukaerarako bukatzeko asmoa dute.





Haritz Zubiaur



- 25 urte
- Soin Hezkuntzako irakaslea
- Kirolaria eta entrenatzailea

Bada eredurik, baita hamaikakorik ere

Betidanik izan ditugu izen eta izan handiko kirolariak Euskal Herrian; Iribar, Urtain, Indurain, Loroño eta Atano IIIa, esaterako. Euskal Herriatik kanpo ere ezaguna da euskaldunen berezko izaera kementsua, ezarritako bideari eusteko tinkotasuna, alegia.

Atzera begiratuz gero, gogora datozkigu transizio garaian eta giro politikoz berezian euskal kirolariak eginiko lorpenak. Zehazki, euskal futbol taldeek 4 liga jarraian irabazi zituzten eta Martin Zabaletak eta bere espedizioak, Everesteko tontorra eginenez, euskaldunen izena lau haizetara zabaldu zuten.

Gaur egun ere badago zeresanik, zer eginik eta zer aldaturik kirol munduan. Hausnarketa xume honen abiapuntu izango da gure futbol taldeen egoera ez oso ona. Realta eta Athletic, eskualdun gehien dituzten taldeak izanagatik, justu-justuan dabilta. Alaves, berriz, euskaldun gutxirekin baina garaipen askorekin. Eta nafarrak, kanpotar zenbaiten laguntzaz, azkenak.

Bien bitartean, euskaldun ugari zelairatzen da igandero etxetik urrun hamaikako ezberdinetan.

Hamaikakoak hamaikako, ezin aipatu gabe utzi orain dela ez asko Lizarra aldean talde sendoa sortu zela, hila-bete batzuetan nahiko indar-

tsu aritu zen taldea, gainera. Hala eta guztiz ere eta jokalariek erronkari gogoz eta ilusioz eutsi zioten arren, entrenatzaileek ez zuten taldea ondo gidatzen asmatu.

Orokorrean, Kirolarien lana, bistakoa den heinean, neurgarria da. Oraingoan, ordea, beste kirol eragileen garrantziaz hitz egin nahi nuke.

Euskaltel-Euskadiren eta Euskadiko Euskal Pilota Federazioaren politika salbuespen eta eredu bezala hartuz, badago zer ikasia eta zer hobetua: Euskal Futbol Selekzioa kanpoan ezagutzera ematea, harrobia zaintzeko politika egokiarekin jokatzera, euskal taldeen arteko liskarrak eta akusazioak ekiditea, jokalaria kanpotarrak fitxatu ordez etxetik kanpo arrakasta lortu duten horiek berreskuratzea, zubi lana eginen duten Eibar bezalako talde interesgarriak mimoz zaintzea, besteak beste.

Esanak esan, ongi zaindu dezagun guztiok batzen gaituen fenomeno hau, kirola, alegia. Saiakera guztiak talde nortasuna eta, bide batez, gure nortasun propioa indartzera bideratuz.

Urteurrenak, epaiak, zikloak elkarren ondotik datozkigun garai hauetan ere, kanpo indarren presentziari aurre egiteko barne indarrei eragitea estrategiarik onena izan daiteke.

Lehiaketa



Zer falta da argazki honetan?

Asmatzaileen artean Tragoxka tabernan bi pertsonentzat afaria zozketatuko dugu

Aurreko argazkia



...eta erantzuna



Argazkian ikusi daitekeen bezala leiho bat falta zitzaien aurreko alean atera genuen sindikato zaharraren argazkiari. Batzuk asmatu dute, besteek ez, ordea. Hala ere oraindik izango duzue **Noaua!**ko saria irabazteko aukerarik, beraz, itxaropenik ez galdu. Alerio egiten dugun moduan orain-goan ere asmatzaileen artean zozketa egitea ez zaigu ahaztu, eta **Jone Azpirozentzat** izango da **Antxetan** bi pertsonentzat afaria. Zorionak!

TRAGOXKA
BAZKARIAK
ETA AFARIAK
Santuenea 23
Tf. 9433627 34

Ford
Usurbil Autoak, S. C. L.
Zerbitzu ofiziala
Zumartegi Poligonoa
Aitezarra kalea, 1
20170 USURBIL
Tlf: 943 36 10 79
Faxa: 943 36 62 92

Haur jantziak
Pauma
Kale Nagusia, 2 Tel. 943 36 59 43

ABENDUAK 6 asteazkena

- **"Konstituzio espainolari berriro ezetz" konzentrazioa** herriko frontoian eguerdiko 13.00etan.

ABENDUAK 8 ostirala

- **Usurbilgo Odol Emaileen Elkartearen** anaiarteko eguna. **Bazkaria Patri jate-txean** izango da. Txartela jaso nahi duzuenok deitu hauetako telefono batetara:
943 36 21 39 (Kattalin)
943 36 00 14 (Mila)
943 36 31 02 (Agustina)
943 36 53 40 (Patxi)

ABENDUAK 10 igandea

- **Aia eta Usurbilgo idien arteko dema** herriko dema plazan. Bi saio izango dira. Eguerdiko 12.00etan Egioleta-Askorte, arratsaldeko 17.00etan Arratzain-Txintxua. Sarrera: 1500 pezeta.

ABENDUAK 11 astelehena

- **Euskal prozesu demokratiakoaren aldeko konzentrazioa.** Bordatxo aurreko errotondan arratsaldeko 20.00etan.

ABENDUAK 17 igandea

- **Santo Tomas azoka** herriko frontoian. Egitaraua: 9.00etan **diana**

11.00etan Bizkarreko udalaren lokalean jarri duten **menbrilo zentruaren inagurazioa.**

11.30etan herriko eta Behemendiko elkarteko nekazaritza produktuen **azokaren irekiera** herriko trikitilarietz lagunduta.

13.00etan **menbrilo dastaketa eta gazia banaketa.**

14.00etan Ixabel I-a 100 kilo inguruko txerriaren zozketa eta nekazaritza postuen arteko lehiaketako sari banaketa.

Goiz guztian zehar **gazitainak, txistorra eta taloa** jateko aukera.

- **Takolo, Pirritx eta Porrotx-ek "Parrandan" lan berriaren aurkezpena** egingo dute Oiardo kiroldegian. Bi saio izango dira: 16.30etan eta 18.30etan. Sarrerak ohiko lekuetan salgai: 650 pezeta aurretik, 800 pezeta egun berean.

OHARRAK

- ✍ **Neska bat eskaintzen da goizez haurrak zaindu, etxeko lanak egin edo adineko jendeari laguntzeko.** Harremanetarako telefonoa: 943 83 39 74
- ✍ **Pisu bat** daukagu salgai Muna Lurrán (Olarriondo). Interesatuok deitu arratsal-

dez 943 36 45 86 telefonora.

- ✍ **Gauean haurrak zainduko nituzke,** urtezahar egunean ere bai. Deitu 943 37 14 47 telefonora (Belen).

- ✍ **Parrokiak jostailu bilketa** egingo du bertako lokaletan abenduaren 22an. Goizean 11.00etatik 12.00etara eta arratsaldean 16.00etatik 18.00etara.

- ✍ **Urrezko pultsera bat galdu** nuen orain dela 3 aste. Deitu telefono honetara: 943 36 03 21

Abenduaren 8an Odol Emaileen bazkaria Patri jatetxean

Txartela jaso nahi duzuenok deitu hauetako telefono batetara:

943 36 21 39 (Kattalin)
943 36 00 14 (Mila)
943 36 31 02 (Agustina)
943 36 53 40 (Patxi)

Salbatore parrokian jostailu bilketa egingo da abenduaren 22an. Goizean 11.00etatik 12.00etara eta arratsaldean 16.00etatik 18.00etara.

XABIER
EDARITEGIA
Etor zaitez,
eta dasta itzazu
Goierriko produktuak
✗ Idiazabal gazta
✗ Beasaingo odolkiak...

Kontseju zarra, 13 ☎ 943 36 04 66

Zendoia enea
Taberna
Kale Nagusia, 35 Telf; 943 36 25 60

- ✓ **Pintxoak**
- ✓ **Bokatak**
- ✓ **Plater**
- ✓ **konbinatuak**
- ✓ **Razioak....**

Publizitatea
hemen jarri
nahi baduzu,
deitu
943 36 03 21
telefonora!



LORTU ITZAZU
TANTORIK EDERRENAK
ESTRELLA (EPSV)
Entidad de Previsión Social Voluntaria
ESTRELLA (BGAE)
Borondatezko Gizarte Aurreikuspen Erakundea

KONTRATATU ITZAZU
ORAIN ETA **%25**eko
DESGRABAZIOA
LORTUKO DUZU



GAURKO DIRUAREN
BALIOA BIHAR IZAN
DEZAN, KONTRATATU
DEZAGUN GAUR
BERTAN.
EGITEAK NAGITZEN
BAZAITU, EGINAK
GOGORATUKO ZAITU.



Etixerako 113 piezako
kuberteria ere eskuratu ahal
izango duzu!

ORBELDI

Telf; 943 37 18 07
Faxe: 943 37 63 41



ESTRELLA
EPSV/BGAE